

2018/00000823 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hamazortziko maiatzaren hamazortzian.

Udaleko idazkaritzako atezain administrari laguntzailearen plaza barne-sustapen mugatu bidez betetzeko hautapen prozeduran onartutakoan eta baztertutakoan behin behineko zerrendari hautagaien bazterketa eragin duten akatsak edo hutsak zuzendu ahal izateko erreklamazioak egiteko epea amaitu da. Zerrenda hori 2018ko apirilaren 19ko alkate Dekretuz onartu zen.

Epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu, beraz zerrenda behin-betikoz onartua gelditzen da.

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau

EBATZI DUT:

Hautagaien onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda onartzea. (Ebazpen honetan dator aipatu zerrenda).

BEHIN-BETIKO ONARTUEN ZERRENDA

Amaia Yarza Gorostidi

BEHIN-BETIKO BAZTERTUEN ZERRENDA

M Cristina Fernandez Yubero

(Partehartzeko baldintzak ez ditu betetzen (Oinarrietako 3.1.a) atala)

Luis Intxauspe Arozamena alkatea agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berariazko egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu(e)la Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berariazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki iriztitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

Hernaniko, 2018ko maiatzaren 18an
IDAZKARIORDEA